

ARNASGUNEA DESERTU

Euskal kulturak birika bat galdu du Plateruenaren itxierarekin batera

Odola izoztu zaio askori Durangoko Plateruenak ateak itxi behar dituela jakin berritan. Eraikin bat, adreilu eta teila multzo bat, euskal kultura duindu eta gure sortzaileak nazioarteko edozein artistaren maila berera eramán zitzakeen espazioa bilaka zitekeela erakutsi du Plateruena proiektuak.

«2004an zabaldu genuen eta, egia esaten badizut, orain ez nintzateke ausartuko horrelako zerbait egitera», azaldu digu Asier Iturriagak, Plateruena kooperatibako bazkide eta aretoko lehen kultura programatzaile izan zenak. Poza eta tristura, soinean biak daramatzala aitortu du, aretoa ixtearekin batera zerbait galduko den kontzientziatz baina, aldi berean, berekin zerbait handia daramala dakielako harrotasunaz. «Nire bizitzako etapa garrantzitsuenetakoa izan da Plateruenakoa eta beti eskertua egongo naiz horregatik, niretzat pertsonalki, eta Berbaroren bidez kolektiboki, oso esperientzia aberasgarria izan baita», ziurtatu du.

Antzerako aldartea erakutsi du Ihintza Orbegozok. Azken lau urteetan berak hartu du kultura programazioaren ardura. Urte nekezak bizitzeko tokatu zaiola dio. «Gogorra izan da, ni jada gauzak ondo ez zeudenean sartu nintzelako», esan du, baina aretoaren urrezko aroa ondo gogoan du. «Askotan izan naiz hemen, kontzertuetan, parrandan, bazkaltzen... Hemen lanean hastea amets bat izan zen niretzat. Beraz, gogorra eta polita izan da aldi berean, irakaspen handia izan delako eta beste modu batean ezagutuko

 **KULTURA /** Amalur Artola

Agur esan du Plateruenak. Eta, horrekin batera, birika bat galdu du euskalgintzak. Ia bi hamarkadaz euskal kulturaren arnasmune izan den espazioak ateak itxiko dituela iragarri du arrazoi ekonomikoak argudiatuz. Umezurtz asko utziko ditu. Plateruenaren irakaspenak ondo gogoan hartuko dituzten umezurtzak.

ez nukeen jendea ezagutu dudalako. Aberasgarria izan da eta pena dezenterekin ixten dugu, baina aldi berean pozik eta harro honen parte izateaz», ziurtatu du.

Asteartean, irailaren 29an, ezohiko batzarrean erabaki zuten Plateruena ixtea. Arazo

ekonomikoek irteerarik gabeko kalekara gidatu dituela aitortu dute. «Gehien eragin duena kontsumo ohiturak aldatu izana da –argudiatu du Ihintzak–. Hemengo eredu ekonomikoa lehengo kontsumo ohiturei lotua egon da, jende askoko ekitaldiak, kon-

Ekitaldi jendetsuak, bazkari handiak, kontzertu potoloak edota Durangoko Azoka izan dira antzokiaren motoreak eta, orain, horiek denak kolokan daude. Aritz LOIOLA | FOKU

tzertu potoloak, bazkari handiak, Durangoko Azoka, parranda giroa... Baina hori dena aldatu egin da eta aurtengo kolpea jada ikaragarria izan da». Pandemiak hilabete luzez ateak ixtera behartu zituen eta «orain zabal genezake, baina edukiera mugatuarekin eta ordutegi estuarekin... ez dago jai ganorazkorik, Azoka ere, gure diru sarrera garrantzitsuetako bat, ez da izango azken urtee takoa, eta aurreikusia dugu diru sarrerarik ez dela apenas egongo».

Itxieraren aukera mahai gainean jartzea, noski, gogorra izan dela diote. «Erabakia hartzea izan da egin dugun gauzarik zailena. Bazkideek bazekiten zertara zihoazen batzarrera eta nahiko gogorra izan zen zenbakiak horren





gordin agertzea, baina uste dugu ondo azaldu zela dena eta jendeak ulertu duela egoera, ikusi duela ez dagoela beste irtenbiderik», esan du.

Azken hilabeteak espazioa berrasmatu nahian eman dituzte, itxierari alternatibak biltzen, «baina ideiak egon diren arren espazio honek dituen dimentsioak ditu, eta ez da erraza. Asko pentsatu dugu, buelta asko eman dizkiegu zenbakiei, baina bide bakarra hau dela ikusi da».

PROIEKTUAREN BIOGRAFIA

Plateruena proiektua Berbaro Durangoko euskara elkartearen ekimenez sortu zen, euskarak akademiatik kalerako, jendarterako, jauzia egin behar zuen ustearekin, Berbaro taberna ireki zutenean. Kafea eta garagardoak zerbitzatzen zituzten, euskaraz, eta hizkuntza horretan zebilen kultura munduarentzat erakusleho bilakatu zen: kontzertuak antolatu zituzten, baita antzerki eta solasaldiak ere, erakusketak, ipuin kontalariak... Euskal kultura munduarentzat erreferentzial bilakatuak ziren.

2002an sortu zen egun Plateruena hartzen duen eraikina aldatzeko aukera. Durangoko Udalak Landako Gunea

Lerroon gainean, Asier Iturriaga eta Ihintza Orbegozo, Plateruenako ordezkariek. Alboan, Korrontziren emanaldi bat.

GAUR8 - Juan Carlos RUIZ | FOKU

eraikitzeke lehiaketa publikoa ireki zuen eta hari jan-edana emango zion ostalaritza gune bat zegoen aurreikusia proiektuan. Ez zuten birritan pentsatu. «Berbaron ekitaldi txikiak egiten genituen eta Plateruenarakoa bat-bateko jauzia izan zen. Ni orduan kultura programazioaren arduraduna nintzen eta lehenengo egunetik gauza pila bat ikasi behar izan nituen... Plateruenara nire ametsik onenean ere imajinatuko ez nituzkeen kulturgile eta sortzaileak inguratu ziren», oroitu du Iturriagak.

Arrakasta izan zuen ekimenak eta, hala, hamasei urtean, 2.139 hitzordu hartzera iritsi da aretoa. Izen handiko artistei eta oholtza urratzen hasiak zirenei, biei egin die leku Plateruenak. Berri Txarrak, Xabier Lete, Izaro, Vetusta Morla, Maialen Lujanbio, Debbie Harry, Mari Luz Esteban, Nacho Vegas, Clem Snide, Swans...



LEKUKOA UDALAREN ESKUETAN DAGO ORAIN

Plateruena itxi egingo da, horrek ez du atzera bueltarik. Baina kultura proiektua hazten ikusi duen eraikinak bertan jarraituko du eta, Plateruena Kooperatibako bazkide Ihintza Orbegozok eta Asier Iturriagak argitu dutenez, proiektuaren arima bere egingo lukeen kultura egitasmoa ari da garatzen Durangoko Udala.

«Hasieratik hitz egin dugu eurekin eta hainbat bilera izan ditugu, azkenean eraikina udal jabetzakoa delako eta ardura dugulako, kooperatiba desegitean –ofizialki abenduaren 31n– eraikinarekin zer gertatuko den jakin nahi dugu», azaldu du Orbegozok.

Bilera horietan hitz egin dutenaren arabera, Durangoko Udalak «herriarentzako kultur proiektu batekin jarraitzeko borondatea» badu, eta kooperatibako kideak eskua luzatzeko prest agertu dira, «azkenean etxea guk ezagutzen dugulako. Parte hartzeko modurik badugu, gu pozik».

Bilera horietan herritarrekin eta elkarte ezberdinekin hausnarketa prozesu bat irekitzeko asmoa dutela adierazi diete Udal ordezkariek. «Hortik ikusiko da proiektu berriren bat sortzen den, baina borondatea behintzat badago», uste du

Orbegozok. Iturriagari proiektu berria parte hartzaileagoa izatea gustatuko litzaioke, «norbanako eta taldeen artean adostutako programazio batekin, adibidez. Hori litzateke ideala. Gero, noski, hori zelan gauzatu ikusi beharko litzateke», hausnartu du.

Hala, borondatea badela ikusita, Plateruenan daukaten ikuskizun eta ostalaritza azpiegitura ere Udalaren esku utziko dutela iragarri dute, «herritarren esku jar dezan».

Izan ere, Iturriagak nabarmendu duenez, eredu ekonomikoa izan da Plateruenaren itxiera eragin duena, ez kultura eredua. «Ekonomikoki aurrera egin ezinik geratu gara, baina hau ireki genuenean genituen helburuek berdin jarraitzen dute eta ez dakit zer erataraino baina jarraituko dugu horiek bultzatzen eta euskarari eta kulturari dagokien espazio duinaren alde egiten». Orbegozok ateratzen dio punta: «Egia da etorkizunean ere hemen kulturgintza erdigunean jarriko duen proiektu herritar bat egotea nahi genukeela, beste forma bat emanda nahi bada, uste dugulako egingarria dela eta herritarrek eskertuko luketela». Harria, beraz, Durangoko Udalaren teilatuan dago orain.

Etxeko eta atzerriko dozenaka musikari, antzezle, pentsalari, poeta eta, oro har, kulturgile eta sortzaileri eman die euren mezua zabaltzeko aukera.

Proiektua gauzatzeko, baina, lagun askoren izerdia eta aha-
legin ekonomikoa behar izan ziren. Plateruena Kooperatiba-
tik adierazi dutenez, 1.405.000 euroko inbertsioa egin da he-
mezortzi urtean. Lehen mul-
tzoa Berbaro euskara elkarteak
jarri zuen (%20), batez ere ta-
bernaren salmentatik lortuta-
ko etekinak proiektu berrira
bideratuta. Erakunde publiko-
engana ere jo zuten sostengu
eske, baina Jaurilaritzaren la-
guntza txiki bat soilik jaso zu-
ten. Halaxe sortu zen Platerue-
na Kooperatiba, herritarren
eta elkarteen babes eta dirua
(%44) batu zituen proiektura.
Kopurua osatzeko behar zuten
%7a lortzeko zorpetu egin zi-
ren.

Diru hori galdutzat jotzen
dute Orbegozok eta Iturriagak.
«Etekinik balego banaketa baz-
kideen ekarpenaren arabera
egingo litzateke, baina 2009ko
kooperatibako batzar nagusi
batean jada onartu zen eteki-
nik ez egotea aurreikusten ze-
la. Ez dugu uste ezer geratuko
denik», uste du Iturriagak.

Geratuko dena %7ko zor hori
da. «Baina guk oso garbi ge-
neukan hornitzaile txikiekin
ez genuela zorrik eduki nahi,
beraz, zor bakarra bankuare-
kin izango da», argitu du Or-
begozok.

Edozein jarduera ekonomi-
koren etetek bezala, Platerue-
naren itxierak langabeak ere
utziko ditu: zortzi lagunek gal-
duko dute lanpostua. «Hasie-
ra-hasieratik, erabakia hartu
aurretik eurekin batzartu gara
eta lanean ari gara, ahalik eta
baldintza onenekin gera daite-
zen», ziurtatu du Orbegozok.



**Plateruena kultura proiektuan sinetsi zuten
ehunka bazkideren sostenguari esker altxa zen.
Horiei esker, euskal kulturak adierazteko
espazio duin bat eskuratu ahal izan zuen**

**Kooperatibaren kalkuluen arabera, hamasei
urtean 2.139 ekitaldi hartu ditu Plateruenako
oholtzak. Orotara, 10.000 kulturgile eta
sortzailek hartu dute parte horietan**

Goiko argazkietan, orain
arte oso ohikoak izan
diren egoerak. Taberna
jendez lepo eta kontzertu
jendetsu bat.
Endika PORTILLO - Jon
HERNAEZ | FOKU

Plateruenako ateak jada itxi-
ta badaude ere, ofizialki aben-
duaren 31ean etengo du jardua
aretoak. Ordura arte
ekitaldiak hartzeko soilik ire-
kiko da aretoa, ez du ostalari-
tza zerbitzurik emango.

#PLATERUENA EZ ITXI

Itxieraren aurrean euskal kul-
tura komunitateak izandako
erantzunarekin hunkituta
agertu dira Orbegozo eta Itu-
rriaga. «Ematen du inork ez
zuela espero Plateruena itxiko
zenik. Agian Durangon intuiti-
boagoa zen, baina herri mai-
lan ere jende bat harritu egin
da albistearekin, eta Euskal
Herri mailan zer esan... Eran-
tzuna ikaragarria izan da, traol
bat ere sortu dute!».

Iragarpenak sareak astindu
ditu eta #PlateruenaEzItxi tra-
olpean bisitari, lagun eta bi-
daide izan dituzten dozenaka
pertsonaren esker eta maita-
sun mezuak ari dira jasotzen.
«Ez genuen espero horrenbes-
teko babes. Apur bat harritu-
ta gaude. Egia da hasieratik
kulturgileekin bat egin dugula
bide hau eta zerbaiten parte
sentitu garela, beraz, poztu ga-
ra beraien babes hori sentitze-
az», gaineratu du Iturriagak.

Behin eraikina Udalaren es-
ku utzita, esperantza dute Pla-
teruena kultur egitasmo berri
baten gordailu bilakatuko de-
la, herritik eta herriarentzat
sortua, euskarari eta kulturari
espazio duina emango diona.

Hortaz, Plateruenak ateak
itxiko ditu. Edo hobeto esan,
Plateruena hartzen duen erai-
kinak. Proiektua herritik sor-
tua, sustatua eta elikatua izan
den bezala, haren oinarrian
dauden balore eta irakaspenak
ere herrian geratuko direlako.
Bidea ez da alferrik urratu. Pla-
teruena, agian, lehen irakaspe-
na besterik ez da izan.